



## AKTA

<b>Espediente-zk.:</b>	<b>Kide anitzeko organoa:</b>
OSOKO BILKURA/2024/1	Udalbatza

BILKURAREN DATUAK	
<b>Deialdi mota</b>	Ohikoa
<b>Eguna</b>	2024ko urtarrilaren 31
<b>Iraupena</b>	19:00etatik 19:45era
<b>Tokia</b>	Osoko bilkuren aretoa
<b>Udalburua</b>	Javier Gorbeña García
<b>Idazkaria</b>	Ziortza Guinea Gutiérrez

BILKURARA BERTARATU DIRENAK		
NAN zk.	Izen-abizenak	Bilkura n izan da
18593219L	AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ	BAI
16032037W	CARLOS ALBERTO ITURRIOZ MALAINA	BAI
18598103G	ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN	BAI
16287057K	EDUARDO LORZA GARCÍA	BAI
72748486S	IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LÓPEZ DE IPIÑA	BAI
30641952H	JAVIER GORBEÑA GARCÍA	BAI
72841412K	MAITE COBO BARCALA	BAI
72831885Q	MIKEL ISASMENDI TXURRUKA	BAI
72841383S	XABIER NAFARRATE CADIÑANOS	BAI

Udalburuak bilkurari hasiera eman dio, idazkariak egiaztatu ondoren organoa balioz eratu dela, eta eguneko aztergaiak aztertzeari ekin zaio.

### A) EBAZPEN-ZATIA







Aldekoa	Bozketa mota: ohikoa / aho batez
<p>Ikusi da Udalaren eta Iturribero Durako Ikasbidea IPIko gurasoen elkartearen artean sinatutako lankidetzako administrazio-hitzarmena Zigoitiko ikasleen garraio-gastua finantzatzeko. 2019ko abenduaren 4an formalizatu zen hasiera batean lau urtez.</p> <p>Ikusi da hitzarmenaren bosgarren klausula eta hitzez hitz honako hau azaltzen du: <i>"Hitzarmen honek 4 urteko iraupena izango du, formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita. Epea amaitu baino lehen, hitzarmenaren alde sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute beste 4 urtez luzatzea edo azkentzea, 40/2015 Legearen 49.h) artikulua aurrez ikusitakoaren arabera".</i></p> <p>Ikusi da Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.h)2 artikulua, eta honako hau ezartzen du: <i>"Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea".</i></p> <p>Hitzarmenaren hasierako indarraldia 2023ko abenduaren 4an amaitu zen, eta Iturribero elkarteak hitzarmena ez luzatzearen borondaterik ez du azaldu. Hortaz, indarreko legediak ematen dizkion eskumenen arabera, Udalbatzak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:</p> <p><b>LEHENENGOA.</b> Onestea Udalaren eta Iturribero Durako Ikasbide IPIko gurasoen elkartearen artean sinatutako lankidetzako administrazio-hitzarmena lau urtez luzatzea Bidelaguna programan parte hartzen duten Zigoitiko ikasleen garraio-gastua finantzatzeko. Hala, 2027ko abenduaren 4an amaituko da.</p> <p><b>BIGARRENA.</b> Ebazpen hau Iturribero elkarteari jakinaraztea, dagozkion ondoretarako.</p> <p><b>HIRUGARRENA.</b> Alkatetzari ahalmena ematea bi aldeek sinatuta luzapena formaliza dezan.</p> <p><b>LAUGARRENA.</b> Hitzarmenaren luzapena administrazio-hitzarmenen udal-erregistroan idaztea.</p> <p><b>BOSGARRENA.</b> Erabaki hau eta luzapenaren formalizazioa Udaleko webgunean, Udalak emandako dirulaguntzen atalean, argitaratzea.</p>	

**737/2023 espedientea. KZguneen irekiera, erabilera eta aprobetxamendua arautze aldera Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartearekin lankidetzako hitzarmena onesteko irizpena**

Aldekoa	Bozketa mota: ohikoa / aho batez
<p>Alkate jaunak jakinarazi du EUDELeK Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartearekin (EJIE) sinatu beharreko lankidetzako hitzarmena bidali duela. Helburua da Konekta Zaitz Ciudadan@ programaren esparruan KZguneen irekiera, erabilera eta aprobetxamendua arautzea. Hala, hitzarmenak dio Udalak, besteak beste, EJIEren esku jarri beharko duela Zigoitiko Gizarte eta Kultur Zentroaren gela bat doan erabilera pribaturako herri-jabariko formulapean. Hasieran 4 urterako izango da, baina beste 4 urtez luzatzeko aukera dago.</p> <p>Ikusi da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2.ñ) artikulua xedatutakoa, eta hitzez hitz honako hau dio: <i>"2. Korporazioko legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa behar da, jarraian agertzen diren arloetan erabakiak hartzeko:</i></p> <p><i>ñ) Beste administrazio edo erakunde publiko batzuei ondasun doan lagatzeko".</i></p> <p>Ikusi da Zigoitiko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartearen (EJIE) artean sinatu behar den lankidetzako hitzarmena Konekta Zaitz Ciudadan@ programaren</p>	





esparruan KZguneen irekiera, erabilera eta aprobetxamendua arautzeko, eta Udalbatzak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.** Onestea Zigoitiko Udalaren eta Sociedad Vasca de Informática del Gobierno Vasco-Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartearen (EJIE) artean sinatu behar den lankidetzaz-hitzarmena Konekta Zaitetz Ciudadan@ programaren esparruan KZguneen irekiera, erabilera eta aprobetxamendua arautzeko. Testua erabaki honi erantsi zaio.

**BIGARRENA.** Alkate jaunari ahalmena ematea hitzarmen hori formalizatzeko.

**HIRUGARRENA.** Erabakia Sociedad Vasca de Informática de Gobierno Vasco-Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteari (EJIE) jakinaraztea, dagozkion ondoretarako.

**LAUGARRENA.** Hitzarmena administrazio-hitzarmenen udal-erregistroan idaztea.

**BOSGARRENA.** Hitzarmen hau sinatu izana Udaleko webgunean argitaratzea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan ezartzen den moduan.

## ERANSKINA

**ZIGOITIKO UDALAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN INFORMATIKA ELKARTEA, S.A. (EJIE)REN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA KZGUNEA ZENTROEN IREKIERA, ERABILERA ETA APROBETXAMENDUA ARAUTZEKO, KZ CIUDADAN@ PROGRAMAREN ESPARRUAN**

*Zigoitia, sinadura elektronikoaren datan*

## BILDURIK

*Alde batetik, JAVIER GORBEÑA GARCÍA Alkate jauna, Zigoitiko Udalaren ordezkari gisa,*

*Bestetik, ASIER SÁEZ DE VICUÑA ORTUETA jauna, EJIE S.A.ko zuzendari nagusia, empresa hori ordezkatzuz,*

## HAUXE ADIERAZTEN DUTE

1.- 2001eko apirilaren 10ean Gobernu-kontseiluak "Konekta Zaitetz Ciudadan@" programa "Euskadi Informazioaren Gizartean" planean sartzea onetsi zuela. Akordio horren bidez, "Konekta Zaitetz Ciudadan@" programaren kudeaketa eta jarraipena egitea informazioaren eta Komunikazioen Teknologien Zuzendaritzaren esku uzten da, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte SA (EJIE)ri programa burutzeko beharrezkoak diren adina zeregin informatiko esleitzeko ahalmena ematen diolarik.

2.- KZguneen Euskal sare publiko hori Eusko Jaurlaritzako Informazio eta Komunikazio Teknologien Zuzendaritza beraren mende dago oraindik ere, eta zuzendaritza horrek urtero "Konekta Zaitetz" programa, aurrerantzean KZgunea, garatzea Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte S.A. (EJIE)ren esku uzten du, eta udalekin zentroak irekitzeko eta kudeatzeko beharrezko akordioak formalizatzea.

3.- Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) 2002eko azaroaren 30ean informazioaren gizartera sartu ahal izateko zentroen sare bat ("Konekta Zaitetz Ciudadan@" programa) martxan jartzea ahalbidetuko zuen akordioa sinatu dutela lankidetzaz marko bat ezartzeko.

4. Gaur egun, KZgunea proiektua Euskadi Eraldaketa Digitalerako Estrategia 2025 – EEDE2025- esparruan kokatzen dela, teknologia personaren zerbitzura jarri eta hurbiltzeko, gizarte digital ireki, demokratiko eta iraunko bat lortzeko funtsezko pieza delarik. Modu estrategikoan, integratzen eta diziplina anitzekoa, IKTen abantailak aprobetxatu nahi dira gizarte-orientazioa duten bi helburu lortzeko: lehiakortasuna hobetzea eta herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea. Ildo horretan, KZgunea eta haren ezarpen zabala helburu horiek lortzeko ekintzak ezartzea ahalbidetzen duen aliatu handia bilakatzen da.

5.- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza ados dago Zigoitia "Konekta Zaitetz Ciudadan@" programari atxikitzearekin. Programa hori 1. Eranskinean adierazitako helbidean dagoen espazioan garatuko da, erabilera eta zerbitzu publikorako bideratua.

6.- 2018ko uztailaren 3an EAEko KZgune zentroetan erabiltzaileei arreta ematen diharduten langileen aurkako jarrera oldakorrak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko plan bat onartu zuen EJIEk. Zigoitiko Udalak kontuan izan nahi du plan hori, zerbitzu hori eskaintzen den espazioaren erabilera-





baldintzak berritu, eguneratu eta hitzarmen bakarreen jaso behar direlarik, eta.

7.- Tokiko araudiek xedatzen dutenez, "jabari publikoko ondasunak erabiltzean, erabilera pribatibotzat joko da jabari publikoaren zati bat okupatzea, gainerako interesdunek erabiltzea mugatu edo galarazten duelarik". Orobat zehazten du jabari publikoko ondasunen erabilera administrazio-emakidari lotuta egongo dela. Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legeak emakiden esleipen erregimena arautzen du 93. eta 94. Artikuluetan. Bertan jasotzen denez, jabari publikoaren emakidak lehia aske bidez emango badira ere, zuzenean ere eman ahalko dira, lege beraren 137.4 artikuluan aurreikusitako egoeretan, eta artikuluko horretako a) atalak dioenez, hartzailea beste administrazio publiko bat bada, zuzenean esleitzeko aukera egongo da.

Hori kontuan izanik, bi aldeei komeni zaie lankidetzaz hitzarmen hau sinatzea, horrek EJI Eri 1. Eranskinean adierazitako helbidean adierazitako gela bat zuzenean emateko bide emango baitu, herri administrazioen arteko lankidetzaz arduratsua lortzea helburu, eta, horrenbestez, egoki da Zigoitiko Udalak KZgunea ireki, erabili eta aprobetxatzen laguntzea, bai eta KZgunean erbiltzaileei arreta ematen diharduten langileen aurkako jarrera oldarkorrek prebenitzeko eta horiei aurre egiteko plana kontuan hartzea ere, honako klausula hauei jarraiki:

### **KLAUSULAK**

#### **LEHENENA. XEDEA**

Hitzarmen honen helburua EJI Eren eta Zigoitiko Udalaren arteko lankidetzaz harremanak ezartzea da, 1. Eranskinean adierazitako helbidean kokatutako KZgunea ireki, erabili eta aprobetxatzeko Prestakuntza- programak eta KZguneak eskaintzen dituen gainerako zerbitzuak emateko eta, halaber, espazio horren gaineko jabari publikoko emakida arautzea.

#### **BIGARRENA. LORTU NAHI DIREN HELBURU KOMUNAK**

Hitzarmen honetako aldeek adostu duten lankidetzaz helburu partikular –zentro bakoitzarenak- eta orokor –KZgunea programarenak- hauek izango ditu:

- KZgunearen Zerbitzuen Kartan zehaztutakoei jarraikiz zabaltea KZgunea zentroa-Zentroaren egutegia KZgune guztientzako egindako egutegi orokorrera egokituko da.
- Udalerriko herritarrei teknologia berrien inguruko prestakuntza libre, unibertsal eta egituratua ematea. Antolakuntza, laguntzaileak hautatzea eta baliabideen eskuragarritasuna zentroko hezitzaileen ardura izango dira.
- Zerbitzuak ematen direla bermatzea, bai KZgunea programakoak bai udalak zentro horretan ematen dituenak zein hitzarmeneko aldeekin lankidetzaz diharduten erakundeek ematen dituztenak, hala, zentroaren kalitate-irudia indartzeko.
- Ahalik eta jende gehienengana heltzea, bai udalerrira mailan, bai oro har, hiur lurralde historikoetan.
- Bi aldeen interesekoa den eta kostu ekonomikorik ez dakarren beste edozein, gastu hori onartzen dutenean izan ezik.

#### **HIRUGARRENA. ZERBITZUAK EMATEKO BALDINTZAK**

- Lan egutegia: KZguneak lan egutegi estandar bat eratuko du bere zentro guztientzat, aurreko urteko azken hilabetean egin eta udaletxera bidaliko dena. Lan egutegi horrek beti Gobernuak onartutako estatu, autonomia erkidego, probintzia eta udal mailako jaieguna hartuko ditu kontuan. Gainera, oro har, abuztuan jai hartuko dute KZguneak. Lan egutegia udalei jakinaraziko zaie Kudeaketa Zentroak onartu bezain laster. Edozein kasutan ere, lan-egutegi hori KZgunea kokatuta dagoen espazioa irekitzeko egun eta ordutegietara egokitu beharko da.
- Lokalaren irekitzeko orduak: ahal denean, hezitzaileei eta/edo KZguneari loturiko programetako begiraleei KZguneako prestakuntza-zerbitzuak eta kanpoko prestakuntza emateko beharrezkoak diren ordutegietan zentroen irekiera ahalik eta gehien erraztuko zaie.
- Lankidetzaz promozioan: ahal den heinean, KZgunean eskaintzen diren zerbitzuen promozioan lagunduko du. Lankidetzaz horrek kostua ekar dezake udalarentzat honelako ekintzak direla eta: gutunak inprimatzea, KZguneak helarazitako progaganda banatzea, zentroa promozionatzeko ekitaldiak antolatzea, etab.

#### **LAUGARRENA. ZERBITZUEN ZERRENDA**

KZguneetako zerbitzu estandarrik





*Indarrean dagoen Zerbitzuen Kartan sartuta daudenak.*

*KZguneetako zerbitzu ez-estandarrik*

*Udalak KZguneari aipatu berri diren zerbitzu estandarretan sartzen ez den zerbitzuren bat emateko eskatuko balio, zerbitzu horiek honela arautuko dira:*

- *KZgunea zentroa dagoen espazioa utzi ahal izango da KZguneke hezitzaileen lan orduetatik kanpo, eskabide formal bat aurkezten denean.*
- *KZgunearena ez den prestakuntza emateko, beharrezkoak diren baliabide teknologikoak egokitu behar badira, KZguneari dagokio egokitzapen hori eskatzea, kudeatzea eta ezartzea, aldaketa horiek aztertu eta bideragarriak direla erabaki eta gero.*
- *Udalak, beharra izanez gero, zentroa KZgunearen ordutegitik kanpo zabaldu ahal izango du nabigazio-zerbitzuak eskaintzeko. Zigoitiko Udalak KZguneari zentroa zein ordutegitan irekiko duen jakinaraziko dio, zerbitzu horren publikitate egokia egin dadin.*

**BOSGARRENA. EJIE-REN BETEBEHARRAK**

*EJIEk honako betebeharrak hartzen ditu bere gain:*

- *Zentroen sarean kokatuta dagoen KZgunea zentroa kudeatzea, KZC@ kudeaketa-zentroan ezarritako irizpide estrategikoei jarraituz. Zentro horiek beharrezko baliabide material eta teknologikoak zein giza baliabideak izango dituzte ezarritako helburuak erdiesteko. Udalari ezberdinetako KZguneen funtzionamendua homogeneoa izango da, eta Zerbitzuen Kartan zehaztutakoak betetzea izango du helburu.*
- *KZgunea zentroa beharrezkoak diren baliabide teknologiko eta didaktikoekin zein giza baliabideekin hornitzea, eta horietatik eratorritako kostuak bere gain hartzea ezarritako helburuak betetzeko. Baliabide hauek dira azpimarragarrienak:*
  - *Azpiegitura teknikoak (PCak, komunikazio-lineak...): erostea eta onik mantentzea, bai horiek konpontzea eta ordezkatzeta ere. 1. eranskinean adierazten da instalatutako ekipo-kopurua.*
  - *KZC@ programaren helburua teknologiak sustatzea da; horretarako diseinatutako zerbitzuen katalogoa osatzen duten prestakuntza- eta zabalkunde-materialak.*
  - *Zerbitzuen katalogoan ageri diren jarduerak egitea.*
  - *Zentroaren kudeaketa egiteko beharrezko informazio-sistema (erabilera eta jardueren dagozkien estatistikak etab.)*
  - *KZguneke Kudeaketa-Zentroak erabiltzaileei arreta emateko lanak, mantentze-lanak, euskarri teknikoei loturikoak etab. kudeatuko ditu.*
  - *Hezitzailearen presentziak bermatuko du KZguneak eskaintzen dituen zerbitzuak behar bezala ematen direla.*
- *KZgunea proiektuari lotutako langileek ez dute inolako kontratu-konpromisorik ez eta lan-loturarik izango Zigoitiko Udalarekin. KZgunea zentroko hezitzaileek ez dute inola ere dagozkion toki-administrazioarekin lan-harremanik edo harreman profesionalik izango.*
- *Udalarekin elkarlanean aritzea zentroan egiten diren jardueren berri herritarren artean zabaltzeko, udalerriko ahalik eta pertsona gehienek parte hartzea lortze aldera. EJIEk beharrezko baliabide (materialak, pertsonalak eta ekonomikoak) erabili eta bere gain hartuko ditu, oro har hiru lurralde historikoetan aplikatu beharreko dibulgazio-ekintzetan.*
- *Zentroaren jarduerak beste erakunde-ekimen batzuekin koordinatzea horien gehienezko sinergia eta errentagarritasuna lortzeko, udalerriko herritarren mesedetan.*
- *Udalari zentroaren eguneroko funtzionamenduaren eta egindako hobekuntza-ekintzen inguruko informazioa ematea, inbertitutako baliabideen eta lortutako emaitzen arteko oreka mantentze aldera.*
- *Udal eta gizarte-etxeetan ematen den zerbitzuaren garapenean sortzen diren gorabehera gatazkatsu eta gizalegearen aurkako jokabide oro koordinatzaileari jakinaraztea.*
- *Lokalak eraikitzeko, altzariz jansteko eta antolatzeko jarraibideak eta irudi korporatiboak ematea.*
- *Aipatutako zentroa KZgunea zentroen sare orokorrean sartzea, martxan jarriko diren*





*jarduera komunei etekina atera diezaien.*

#### **SEIGARRENA. ZIGOITIKO UDALAREN BETEBEHARRAK**

Zigoitiko Udalak honak betebeharrak hauek hartuko ditu bere gain:

- 1. eranskinean adierazitako lekuan kokatutako lokal bat EJIeren esku jartzea jabari publikoko emakida bidez eta koserik gabe, KZgunea programa gara dadin. Lokal horri sarbide-baldintza egokiak eman beharko dizkie Udalak KZgunearen identifikazio eta errotulazio egokia beti bermatuko delarik..Lokalaren atontzea, altzariei, pinturari, kableei eta abarrei dagokienez.
- Erantzukizun zibila eta lokalaren mantentze-lan desegokiak KZgunearen azpiegitura-ekipoei eragindako kalteak bere gain hartzea, ondorioz, beharrezkoak diren aseguruak kontratatzea eta udal-titulartasuneko lokal eta instalazioei dagozkien segurtasun-arau eta neurriak ezartzea.
- Lokala baldintza egokietan mantentzea, garbitasunari, urari, energia elektrikoari eta abarrei dagokienez, eta horietatik eratorritako gastuak bere gain hartzea.
- Udalaren ahalmenen neurrian, 1. eranskinean adierazten den helbidean dagoen KZguneari ematen den zerbitzuaren erabilera ona sustatu eta bultzatzea, betiere EAeko KZguneari jenderarentzako arretako langileekiko jarrera bortitzen aurkako prebentzio- eta jarduera-plana kontutan hartuta.
- Zentroko egunerokoan gerta litezkeen gatazka-egoerak bideratzeko harremanetarako baliabide egokiak ematea.
- Zentroaren eta bertan garatzen diren jardueren berri ematea Udalak helburu horretarako dituen baliabideak erabiliz (Udal Aldizkaria, mailing-ak...), KZgunea programako Komunikazio arduradunarekin koordinatuta.
- Aipatutako hedapen hori egiteko beharrezkoak diren baliabide materialak, pertsonalak zein ekonomikoak bere gain hartzea. Zentroak udalerraren esparruan garatzen dituen jardueren zabalkunde-ekinzentarako soilik erabiliko ditu Zigoitiko Udalak bide horiek.

#### **ZAZPIGARRENA. KONTROLA ETA SEGIMENDUA**

Hitzarmen honen bidez adosten diren zerbitzuen funtzionamendu egokia zaindu beharko dute bi alderdieketa, bi aldeetako edozeinek eskatuta, bilerak egin ahal izango dira egokitzat jotzen denean.

- EJIek KZguneko Kudeaketa Zentroari loturiko langileak esleituko ditu.
- Zigoitiko udalaren aldetik:
  - Eusko Jaurlaritzako arduradun instituzionalekin harremanetan egongo den izaera instituzionaleko bitarteko bat.
  - Eta izaera teknikoko bitartekariak, KZguneko Kudeaketa Zentroan dauden arduradunekin harremana mantentzen dutenak.

#### **ZORTZIGARRENA. ERREGIMEN EKONOMIKOA**

Lankidetzeta-hitzarmen honek ez du alde sinatzaileen artean betebeharrak ekonomikorik sortzen.

#### **BEDERATZIGARRENA. IRAUPENA ETA ONDORIOAK**

Hitzarmenak lau urteko indarraldia izango du, sinatzen den egunetik kontatuta; hala ere, beste lau urteko luzapena izan dezake, betiere ekitaldi horretako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan kreditu egokia eta nahikoa badago.

#### **HAMARGARRENA. HITZARMENA AZKENTZEKO ARRAZIOAK**

Hitzarmen hau bi alderdiek hala adosten badute edo alderdietako batek bere kabuz erabakitzen badu, baliogabetu ahal izango da, beste aldeak bere betebeharrak betetzen ez baditu edo egokitzat jotzen duen beste edozein arrazoi gertatzen bada, betiere kontrako alderiari gutxienez hiru hilabete lehenago jakinarazten badio. Krediturik ez egotearen edo hori murriztearen ondorioz hitzarmena ez luzatzea erabakitzen bada eta arrazoi horregatik azkentzen bada hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu orokorrak argitaratu eta gero egingo da jakinarazpena.

Hitzarmen honetako helburuak erdiesten badira, gertaera hori hitzarmen hau azkentzeko arrazoi izan daiteke eta, Kalitate Planean ezarrita dagoen EAeko hiru lurraldeetan ahalik eta jende gehienenganan heltzeko helburu orokorra ardatz hartuta, ekipoak eta langileak KZgunea proiektuak bere





zerbitzuak eman behar dituen beste udalerrri batera eraman ahal izango dira.

Hitzarmena azkentzeko arrazoia edozein dela ere, ez da ondare-ondoriorik egongo eta aldeetako bakoitzak proiektuari emandako baliabide eta ondasunen jabetza eta titulartasuna mantenduko du zentroa ixtea adostu ondoren.

#### **HAMAİKAGARRENA. ERREGIMEN JURIDIKOA**

Hitzarmen hau izaera administratibokoa da, Sektore Publikoaren Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan lankidetzeta-hitzarmenatarako bereziki xedatutakoarekin bat.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6. Artikuluan aurreikusitakoekin bat, hitzarmen hau Lege horren aplikazio-eremutik kanpo dago.

#### **HAMABIGARRENA. ARAZOAK KONPONTZEA**

Hitzarmen hau sinatuz, alderdiek hitzarmena betetzean sor daitezkeen gorabeherak elkarren arteko adostasunez konpontzeko konpromisoa hartzen dute.

#### **HAMAHIRUGARRENA. INFORMAZIOAREN BABESA ETA SEGURTASUNA**

Hitzarmen hau garatzen Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak galdatzen dituen segurtasun neurriak hartuko dira, edo hori ordezkatzeko duenean eta/edo hori garatzeko araudi osagarrian ezarritakoak.

#### **HAMALAU GARRENA. ALDAKETAK**

Hitzarmen honetan zehaztutako exekuzio-baldintzetan eragina duten inguruabarrak aldatu egiten badira, baldintza horiek aldatu egin ahalko dira bi aldeek sinatutako eranskin baten bidez; horretan idatzitako puntuek jatorrizko testukoak ordezkatu dituzte eta jatorrizko hitzarmenera gehituko dira, gainerako klausulei inolako aldaketarik eragin gabe.

Programara bideratutako kredituan edo, efizientzia dela eta, kreditu hori KZguneen artean banatzeko moduan aldaketarik gertatzen bada, lanpostu-kopuruak, hezitzaile-kopuruak eta dedikazioak eta KZgunearen ordutegiak aldaketak jasan ditzakete proiektua indarrean dagoen artean. Alderdi horietako edozein aldatzeak ez du beste hitzarmen bat sinatzea edo hitzarmen hau aldatzea eskatuko. Udalerrian zentro berri bat zabaltzen bada indarrean dagoen hitzarmeneko eranskina aldatu beharko da, gorago adierazi bezala, besterik ez.

### **207/2023 espedientea. Gizarte eta Kultur Zentroaren kudeaketa osorako zerbitzu-kontratuaren adjudikazioa onesteko irizpena**

**Aldekoa**

**Bozketa mota:** ohikoa / aho batez

Aurkeztu da Administrazio Klausula Partikularren Agiriko adjudikazio-irizpideen arabera puntu gehienak eskuratu ostean, enpresa lizitatuarekiko eskatu zitzaion dokumentazioa, eta alkate jaunak honako irizpen-proposamen hau bozkatzeko proposatu du, gerora, Udalbatza Osoak onesteko:

Ikusi da izapidetu den kontratazio-espedientea:

<b>Agiria</b>	<b>Eguna</b>
Preskripzio teknikoen agiria	2023/09/18
Administrazio-klausulen agiria	2023/09/18
Kontratazio-organoaren ebazpena	2023/09/18
Udaleko AOTaren proposamen-txostena	2023/09/19
Aurretiazko fiskalizazio-txostena (A fasea)	22/09/2023
Justifikazio-memoria	2023/09/26
Lizitazioaren iragarkia kontratatzailearen profilean	2023/10/02
Lizitazioaren iragarkia EBAOn	2023/10/06
Kontratazio-mahaiaren akta, «A» eta «C» fitxategi elektronikoak irekitzeari buruzkoa	2023/11/06
Kontratazio-mahaiaren akta, «B» fitxategi elektronikoak ireki eta adjudikazio-proposamenari buruzkoa	2023/11/20







Hobekien sailkatutako lizitatuzaileari egindako errekerimendua	2023/11/21
Eskatutako dokumentazioaren aurkezpena	2023/12/02

Ikusi dira adjudikatu nahi den kontratuaren ezaugarriak:

<b>Kontratu mota:</b> zerbitzuak	
<b>Kontratuaren xedea:</b> Zigoitiko Gizarte eta Kultur Zentroa oso-osorik kudeatu eta koordinatzea	
<b>Kontratazio-prozedura:</b> irekia	<b>Izapidetze mota:</b> ohikoa
<b>CPV kodea:</b> 92000000-1 "Aisialdi-, kultura- eta kirol-zerbitzuak" 79995000-5 "Liburutegiak kudeatzeko zerbitzuak"	
<b>Kontratuaren balio zenbatetsia:</b> 1.185.436,57 €	
<b>Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZik gabe):</b> 232.438,54 €	<b>% 21eko BEZa:</b> 48.812,09 €
<b>Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, BEZa barne:</b> 281.250,64 €	
<b>Gauzatze-iraupena:</b> 1 urte	<b>Gehieneko iraupena:</b> 5 urte

Aztertu da erantsi den dokumentazioa, ikusi da idazkariaren txostena, eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren zuzentarauen transposizioa egiten du Espainiako antolamendu juridikora) bigarren xedapen gehigarrian xedatzen denarekin bat etorri, Udalbatzak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.** Zigoitiko Gizarte eta Kultur Zentroa oso-osorik kudeatzeko zerbitzu-kontratua, arauketa harmonizatuaren arabera prozedura irekiaren bidez, ALAIKI ZERBITZU GIZAKULTURALAK SL enpresari, 1 urtez adjudikatzea 209.150 euroren truke gehi 43.921,50 euro BEZaren kontzeptupean, eskaintzan eta administrazio-klausula partikularren eta preskripzio teknikoen agiritan ageri diren baldintzetan.

**BIGARRENA.** Adjudikazioa Kontratazio Mahaiak 2023ko azaroaren 20ko bilkuran adjudikaziodun horren alde egindako proposamenarekin bat etorri justifikatu da, administrazio-klausula partikularren agiriko adjudikazio-irizpideen arabera puntuaziorik altuena lortu baitu aktan jasotzen denaren ildotik. Hona hemen hitzez hitz dioena:

*"Balio-judizioaren mendeko adjudikazio-irizpideak (administrazio-klausula partikularren agiriaren hamabigarren klausulako B atala) baloratzeko Adituen Batzordeak 2023ko azaroaren 16an egin zuen txostenean enpresa lizitatuzaileek honako emaitza hauek lortu dituzte:*

"BALIO-JUDIZIOEN BIDEZ HAZTATU DAITEZKEEN ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK" C FITXATEGI ELEKTRONIKOKO PUNTUAK								
ENPRESA LIZITATZAILEAK	IRIZPIDEAK							
	LIBURUTEG I- ZERBITZUA (gehienez, 8 puntu)	LUDOTEK A- ZERBITZUA (gehienez, 8 puntu)	GAZTELEK U- ZERBITZUA (gehienez, 8 puntu)	URTEKO IKASTAROEN ETA MONOGRAFIKO EN ZERBITZUA (gehienez, 8 puntu)	UDALEKUE N, ASTE SANTUKO ETA GABONET AKO HAURRENT ZAKO TAILERRE N ZERBITZUA A (gehienez, 8 puntu)	GIZARTE ETA KULTUR ZENTROAN GARATUTAKO ZERBITZUEN ETA JARDUEREN PUBLIZITATE-HEDAPENEN ZERBITZUA UDALEKO WEBGUNEAREN, SARE SOZIALEN ETA MATERIAL GRAFIKOAREN DISEINUAREN BIDEZ (gehienez, 13 puntu)	KONTRATU A EGIKARITZ EARI ATXIKITAKO LANGILEEN PRESTAKU NTZA (gehienez, 7 puntu)	BALIO-JUDIZIOEN BIDEZ BALORA DAITEZKEEN ADJUDIKAZIO IRIZPIDEETAN GUZTIZKO PUNTUAK (gehienez, 60 puntu)
LUDOLAND SL	6,90 puntu	7,20 puntu	6,20 puntu	7 puntu	7,10 puntu	11,50 puntu	2,70 puntu	48,60 puntu
ALAIKI ZERBITZU GIZAKULTURALAK SL	5,35 puntu	5,85 puntu	5,80 puntu	5,90 puntu	5,40 puntu	8,60 puntu	6,30 puntu	43,20 puntu
NASCOR FORMACION SL	0,30 puntu	0,40 puntu	1,20 puntu	0,20 puntu	0,40 puntu	0,40 puntu	2 puntu	4,90 puntu





*Ikusi dira administrazio-klausula partikularren agiriaren hamabigarren klausulako A atalean dauden adjudikazio-irizpideak. Hitzez hitz honako hau xedatzen dute: "A. Automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideei beheranzko ordenan emango zaizkie puntuak (gehienez, 40 puntu):*

**A.1. PREZIOA: gehienez, 35 puntu.**

Proposamen ekonomikoaren puntuak honela mailakatuko dira:

- % 10eko beherapenera arte: lizitazio-prezioaren gainean beheratzen den % 1 bakoitzeko, 2,5 puntu.
- % 10 baino gehiago, baina % 20 baino gutxiago beheratzen bada: lizitazio-prezioaren gainean beheratzen den % 1 bakoitzeko, beste 0,8 puntu gehigarri.
- % 20tik gorako beherapeneterako: lizitazio-prezioaren gainean beheratzen den % 1 bakoitzeko, beste 0,025 puntu gehigarri, gehienez, 2 puntura iritsi arte.

**A.2. ATEZAINZA- ETA HARRERA-ZERBITZURAKO FAKTURATU EZIN DIREN APARTEKO ORDUEN POLTSA: gehienez, 5 puntu emango dira honako banaketa honen arabera:**

**A.2.1. Atezaintza- eta harrera-zerbitzurako fakturatu ezin diren aparteko orduen poltsa:** fakturatu ezin den aparteko ordu bakoitzeko, 0,1 puntu, **gehienez, 5 puntura arte**".

*Ikusi da administrazio-klausula partikularren agiriaren laugarren klausula. Horren bidez, zehazten da zerbitzu-kontratu honi dagokion lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 281.250,64 eurokoa dela (BEZa barne). Hori aintzat hartuta, proposamen ekonomikoa eta automatikoki kuantifika daitekeen dokumentazioa jasotzen dituen «B» fitxategi elektronikoak ireki dira, eta hona hemen emaitzak:*

<b>ENPRESA LIZITATZAILEA</b>	<b>ESKAINITAKO PREZIOA (BEZa barne)</b>	<b>BEHERAP ENAREN EHUNEKO A</b>	<b>PREZIOAREN PUNTUAK (gehienez, 35 puntu)</b>
<b>ALAIKI ZERBITZU GIZAKULTURALAK SL</b>	253.071,50 €	10	<b>25 puntu</b>
<b>NASCOR FORMACIÓN SL</b>	273.656,87 €	2,7	<b>5 puntu</b>
<b>LUDOLAND SL</b>	275.601,70 €	2	<b>5 puntu</b>

*Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Araudi Orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 85. artikulua ezartzen duena kontuan hartuta, egiaztatu da eskaintza ekonomikorik merkeena ez dela ohiz kanpo baxua, administrazio-klausula partikularren agiriaren hamalagarren klausulan xedatutakoaren arabera.*

*Egiaztapena egin ondoren, ziurtatu da ALAIKI ZERBITZU GIZAKULTURALAK SL enpresak aurkeztu duen eskaintza ekonomikoa ez dela ohiz kanpo baxua, beraz, bere proposamena baloratzen jarraitu da.*

<b>ENPRESA LIZITATZAILEA</b>	<b>ATEZAINZA- ETA HARRERA-ZERBITZURAKO FAKTURATU EZIN DIREN APARTEKO ORDUEN POLTSA</b>	<b>ATEZAINZA- ETA HARRERA-ZERBITZURAKO FAKTURATU EZIN DIREN APARTEKO ORDUEN POLTSAK PUNTUAK (gehienez, 5 puntu)</b>
<b>ALAIKI ZERBITZU</b>	50 ordu	<b>5 puntu</b>



<b>GIZAKULTURALAK SL</b>		
<b>NASCOR FORMACIÓN SL</b>	50 ordu	<b>5 puntu</b>
<b>LUDOLAND SL</b>	50 ordu	<b>5 puntu</b>

<b>ENPRESA LIZITATZAILEA</b>	<b>B FITXATEGI ELEKTRONIKOKO PUNTUAK, GUZTIRA (gehienez, 40 puntu)</b>
<b>ALAIKI ZERBITZU GIZAKULTURALAK SL</b>	<b>30 puntu</b>
<b>NASCOR FORMACIÓN SL</b>	<b>10 puntu</b>
<b>LUDOLAND SL</b>	<b>10 puntu</b>

Ikusi dira balio-judizio baten arabera haztatu daitezkeen adjudikazio-irizpideen (C fitxategi elektronikoak) eta automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideen (B fitxategi elektronikoak) balorazioa. Orokorrean honako puntu hauek lortu dituzte:

<b>ENPRESA LIZITATZAILEA</b>	<b>C FITXATEGI ELEKTRONIKOKO PUNTUAK, GUZTIRA (gehienez, 60 puntu)</b>	<b>B FITXATEGI ELEKTRONIKOK O PUNTUAK, GUZTIRA (gehienez, 40 puntu)</b>	<b>AURKEZTUT AKO ESKAINTZAREN PUNTUAK, GUZTIRA (gehienez, 100 puntu)</b>
<b>ALAIKI ZERBITZU GIZAKULTURALAK SL</b>	43,20 puntu	30 puntu	<b>73,20 puntu</b>
<b>LUDOLAND SL</b>	48,60 puntu	10 puntu	<b>58,60 puntu</b>
<b>NASCOR FORMACIÓN SL</b>	4,90 puntu	10 puntu	<b>14,90 puntu</b>

Horrenbestez, Kontratazio Mahaiak kontratazio-organoari proposatu dio Zigoitiko Gizarte eta Kultur Zentroa oso-osorik kudeatu eta koordinatzeko zerbitzu-kontratua urtebetez ALAIKI ZERBITZU GIZAKULTURALAK SL enpresak aurkeztu duen proposamenari adjudikatzea 253.071,50 euroren truke (BEZa barne), puntuaziorik altuena lortu baitu.

**HIRUGARRENA.** 2024 ekitaldian eman behar diren zerbitzu-hilabetei dagokien zati proportzionalaren gastua xedatzea.

**LAUGARRENA.** Erabaki honen berri ematea Kontu-hartzailetzari eta Diruzaintzari, dagozkion kontabilitate-idatzoharrak egin ditzaten.

**BOSGARRENA.** Adjudikazioaren iragarkia 15 egunez kontratatzailearen profilean argitaratzea.

**SEIGARRENA.** Kontratuaren arduradun Kultura eta Kontratazio Arloko teknikariak izendatzea.

**ZAZPIGARRENA.** Adjudikazioa adjudikaziodun izan ez diren lizitatzaleei jakinaraztea eta kontratazioaren errekurtso berezirako aukera ematea, SPKLren 44. artikularekin bat etorritz.

**ZORTZIGARRENA.** ALAIKI ZERBITZU GIZAKULTURALAK SL enpresari (kontratuaren adjudikazioduna) ebazpen hau jakinaraztea eta gainerako lizitatzaleei jakinarazpena bidaltzen zaienetik zenbatzen hasita 15 egun baliodun igarotzen direnean kontratua sinatzeko deialdia egitea, SPKLren 44. artikularekin lotuta 153.3 artikularen arabera.

**BEDERATZIGARRENA.** Kontratua burutu ondoren, kontratua formalizatzearen iragarkia gehienez ere 15 eguneko epean argitaratzea kontratatzailearen profilean, Sektore Publikoaren Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen III. eranskinean ezartzen den edukiarekin.





**HAMARGARRENA.** Kontratua formalizatzearen iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea kontratua formalizatu eta gehienez 10 egun igaro ondoren.

**HAMAIKAGARRENA** Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari kontratuaren oinarritzko datuak jakinaraztea, honako hauek barne: adjudikaziodunaren izena, adjudikazioaren zenbatekoa, eta balio erantsiaren gaineko zergari dagokion xehakapena.

**293/2021 espedientea. Bengolarrako kirol-instalazioen eraikina birgaitzeko eta handitzeko obra-kontratuaren hirugarren aldaketa onesteko irizpena**

<b>Aldekoa</b>	<b>Bozketa mota:</b> Izenduna Alde: 5; aurka: 4; abstentzioak: 0
<b>Aldekoak</b>	JAVIER GORBEÑA GARCÍA (EAJ- PNV) CARLOS ALBERTO ITURRIOZ MALAINA (EAJ-PNV) MAITE COBO BARCALA (EAJ-PNV) IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA (EAJ- PNV) ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN (PP)
<b>Aurkakoak</b>	EDUARDO LORZA GARCÍA (EH BILDU) AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ (EH BILDU) XABIER NAFARRATE CADIÑANOS (EH BILDU) MIKEL ISASMENDI TXURRUKA (EH BILDU)
<b>Abstentzioak</b>	-

Xabier Nafarrate Cadiñanos zinegotziak aipatu du berriki Bengolarra eraikinaren obrak bisitatu dituztela, eta udal-arkitektoak aurreratu zien instalazioak ezingo zirela uda honetan ireki.

Alkate jaunak erantzun du obren egikaritze-epaia maiatzaren 31n amaitzen dela, eta optimista ageri da. Dena den, azpimarratu du data hurbiltzen doan neurrian ikusten bada ezin dela udan igerilekuen zerbitzua eman, izapide egokiak egingo dituztela berriz ere Zuiako Udalarekin lankidetzan zerbitzua emateko.

Alkate jaunak irizpena bozkatzeko eskatu du eta gehiengoz onetsi da. Hitzez hitz hala dio:

2022ko urtarrilaren 24ko Udalbatzaren erabakiaren bidez, Zigoitiko Udalak erabaki zuen Bengolarra gunea birgaitzeko eta handitzeko obra INDENORT PV eta SLU PROVIDER IBÉRICA SLU ABEEri adjudikatzea, 2.903.991,88 euroan (% 21eko BEZa barne).

2023ko apirilaren 24ko Udalbatzaren erabakiaren bidez, Bengolarrako kirol-instalazioen eraikinean Europar Batasunaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak finantzatutako birgaitze- eta handitze-obren kontratuaren 1. aldaketaren espedientea onartu zen, hau da, jarraian zehazten diren obren prezio berriak onetsi ziren:

	Prezio berria duen partida			Kontratutako prezioa duen partida			Partida orekatua				Gehikuntzaren ehuneko, kontratuaren aldean
	unit.	Prezio unitarioa	EMA	unit.	Prezio unitarioa	EMA	EMA	Kontrataturaren aurrekontua	Kontrataturaren aurrekontua, beharapena barne	Kontratatuaren prezioa, beharapena eta % 21eko BEZa barne	
1 Saneamendu-kolektorea	37,30	311,42	11.615,97	0,00	0,00	0,00	11.615,97	13.823,00	13.388,92	16.200,59	0,56%
2 Frontoirako konexio elektrikoa	1,00	2.876,21	2.876,21	0,00	0,00	0,00	2.876,21	3.422,69	3.315,21	4.011,40	0,14%
3 Dorre-garabian eskalatzea	2,00	1.547,34	3.094,68	0,00	0,00	0,00	3.094,68	3.682,67	3.567,02	4.316,10	0,15%
4 Zimendu-hormak iragazgaitzea	233,08	39,99	9.320,87	0,00	0,00	0,00	9.320,87	11.091,83	10.743,52	12.999,66	0,45%





5	Beheko solairuko egituran jarduketak	1,00	7.124,23	7.124,23	0,00	0,00	0,00	7.124,23	8.477,83	8.211,60	9.936,04	0,34%
6	Emendakinak eta leiho-isurkiak eraistea	775,17	11,92	9.240,03	0,00	0,00	0,00	9.240,03	10.995,63	10.650,34	12.886,91	0,44%
7	Dauden zimenduak saneatu eta erregulatzea	82,85	26,18	2.169,01	0,00	0,00	0,00	2.169,01	2.581,13	2.500,07	3.025,09	0,10%
8	Fatxadako pitzadura konpontzea	1,00	2.457,18	2.457,18	0,00	0,00	0,00	2.457,18	2.924,04	2.832,22	3.426,99	0,12%
	Guztira			47.898,17			0,00	47.898,17	56.998,83	55.208,89	66.802,76	2,30%

2023ko abenduaren 18ko Udalbatzaren erabakiaren bidez, Bengolarrako kirol-instalazioen eraikinean Europar Batasunaren Berreskuzte, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana-Next Generation EUk finantzatutako birgaitze- eta handitze-obren kontratuaren 2. aldaketaren espedientea onartu zen, hau da, jarraian zehazten diren obren prezio berriak onetsi ziren:

	Prezio berria duen partida			Kontratutako prezioa duen partida			Partida orekatua				Gehikuntzaren ehuneko, kontratuaren aldean
	unit.	Prezio unitarioa	EMA	unit.	Prezio unitarioa	EMA	EMA	Kontrataren aurrekontua	Kontrataren aurrekontua + beherapena barne (beherapena: % 3,1402882)	Kontratuaren prezioa, beherapena eta % 21eko BEZa barne	
1	Frontoiaren egitura egokitzea		134.690,79			134.690,79	134.690,79	160.282,04	155.248,72	187.850,95	6,47%

2024ko urtarrilaren 16an, obra-zuzendariak proiektuan aurrez ikusita ez zeuden obra-unitateei buruzko txostena egin zuen, eta prezioak merkatuko prezio orokorretan oinarrituta finkatu zituen. Kontratatuen adostasuna barne zegoen.

Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora) (aurrerantzean, SPKL), 242.4 artikuluan zehazten du ez dela kontratuaren aldaketatzat hartzen:

ii. Prezio berriak sartzea, lege honetan eta berau garatzeko arauetan ezarritako prozeduren bidez kontraesanek finkatutakoak, baldin eta prezio berri horiek

- Kontratuaren prezio orokorraren igoerarik ez badakarte eta
- Obra-unitateetan hasierako aurrekontua guztira ehuneko 3 gainditu gabe eraginik ez badute.

Kasu honetan, obra-unitateak aldatzean prezioa 208.291,19 eurotan igotzen denez, obra-kontratu aldatutzat joko da eta, ondorioz, SPKLren 242. eta 205. artikuluetan aurrez ikusitako aldaketa-prozeduraren arabera izapidetu beharko da.

SPKLren 242.2 artikulua honako hau arautzen du:

*“Aldaketak direla-eta, proiektuan aurreikusita ez zeuden obra-unitateak sartu behar badira edo horien ezaugarriak proiektuan ezarritakoak ez bezalakoak badira, eta beste lizitazio bat egin beharrik ez badago, **Administrazioak finkatuko ditu aplikatu beharreko prezioak, kontratistari gutxienez hiru egun baliodunentzuz ondoren.** Kontratistak finkatu diren prezioak onartzen ez dituenean, kontratazio-organoak beste enpresaburu batekin kontratatu ahalko ditu aldaketok, finkatutako prezio horietan, edo zuzenean egikaritu ahalko ditu, edo kontratua suntsiarazi ahalko du, lege honen 211. artikuluari jarraituz”.*

Horrez gain, SPKLren 205. artikulua administrazio-klausula partikularren agirian aurrez ikusten ez diren aldaketak ditu hizpide: prestazio osagarriak, ustekabeko inguruabarrak eta funtsezkoak ez diren aldaketak. Honako hau dio artikulua:

*“1. Administrazio-klausula partikularren agirian aurreikusitako gabeko aldaketak, edo aurreikusitakoak izanik ere aurreko artikuluan ezarritakoari egokitzen ez zaizkionak, **honako baldintza hauek** betetzen dituztenean egin ahalko dira soilik:*





a) *Justifikazioa izatea artikulua honen bigarren apartatuan zerrendatzen diren **kasuetako** batean.*

b) *Mugatuta egotea bera beharrezko egiten duen kausa objektiboari erantzuteko **zorrozki ezinbestekoak diren aldaketak** sartzera.*

2. *Aurreikusi gabeko aldaketa bat justifika lezaketen kasuak, baldin eta artikulua honen lehen apartatuan jasotako baldintza guztiak betetzen badira, honako hauek dira:*

a) *Beharrezko gertatu denean hasiera batean kontratatutakoei **obra**, hornidura edo zerbitzu **gehigarriak gehitzea**, betiere honako bi baldintza hauek beteta:*

1.a *Kontratatuz aldatzea ezinezkoa izatea arrazoi ekonomiko edo teknikoengatik; esate baterako, kontratazio-organoa behartuta egotea hasieran kontratatutakoek dituzten ezaugarri teknikoek bestelakoak dituzten obra, zerbitzu edo hornidura batzuk eskuratzera, eta diferentzia horiek erabileran edo mantentzean neurritz kanpoko bateraezintasunak edo zailtasun teknikoak sortzea; eta, halaber, kontratatuz aldatzeak kontratazio-organoari eragozpen handiak edo kostuen igoera nabarmena ekartzea.*

*Inolaz ere ez da eragozpen handizat hartuko kontratatuz aldatzeko beste lizitazio bat egin behar izatea.*

2.a *Kontratuaren aldaketak kontratuaren diru-zenbatekoan dakarren aldaketak ez gainditzea, kontratuaren aldaketa horrekin bakarrik edo artikulua honen arabera adostutako beste aldaketa batzuekin batera, hasierako prezioaren ehuneko 50 BEZik gabe.*

b) *Lizitazioaren unean **aurreikusi ezin zitezkeen eta gerora sortu diren gorabeheretatik** etorri denean indarrean dagoen kontratu bat aldatzeko beharra; betiere, honako baldintza hauek bete beharko dira:*

1.a *Administrazio arduratsu batek aurreikusi ezingo zituen inguruabar batzuetatik etortzea aldaketaren beharra.*

2.a *Aldaketak kontratuaren izaera orokorra ez aldaraztea.*

3.a *Kontratuaren aldaketak kontratuaren diru-zenbatekoan dakarren aldaketak ez gainditzea, kontratuaren aldaketa horrekin bakarrik edo artikulua honen arabera adostutako beste aldaketa batzuekin batera, hasierako prezioaren ehuneko 50 BEZik gabe.*

c) ***Aldaketak funtsezkoak ez izatea.** Kasu horretan, berariaz justifikatu beharko da haien beharra, adieraziz zer arrazoi dauden prestazio horiek hasierako kontratuan ez sartzeko.*

*Kontratuaren aldaketak funtsezkotzat jotzeko, haien emaitzak hasiera batean egindako kontratuaz bestelakoa den kontratu bat izan behar du benetan. Nolanahi ere, aldaketak honako inguruabar hauetako bat edo batzuk betetzen dituztenean joko dira funtsezkotzat:*

1.a *Aldaketak ezartzen dituen baldintzak hasierako kontratazio-prozeduran jasota egon balira aukera eduki izana hasieran hautatutako hautagaiez beste batzuk hautatzeko, hasieran onartutakoaz beste eskaintza bat onartzeko edo kontratazio-prozedurarako parte-hartzaile gehiago erakartzeko.*

*Nolanahi ere, aurreko paragrafoan aurreikusitako kasutzat hartuko da kontratatari beste sailkapen bat eskatzea –eta ez jatorrizko lizitazio-prozeduran eskatu zitzaiona– hala eskatzen duelako jatorrizko proiektutik edo baldintza-agiritik ateratzen diren obrei edo zerbitzuei egin nahi den aldaketa gehitzeak.*

2.a *Aldaketak hasierako kontratuan aurreikusi gabeko modu batean aldaraztea kontratuaren oreka ekonomikoa kontratataren mesedetan.*

*Nolanahi ere, aurreko paragrafoan aurreikusitako kasutzat hartuko da egin nahi*





den aldaketaren ondorioz obra-unitate berriak sartzea eta horien zenbatekoa kontratuaren hasierako aurrekontuaren ehuneko 50etik gorakoa izatea.

3.a Aldaketak modu nabarmenean zabaltzea kontratuaren eremua.

Nolanahi ere, honako hauek betetzen direnean iritziko zaio aurreko paragrafoan aurreikusitako kasua gertatzen dela:

(i) Aldaketaren balioak, isolaturik nahiz osotara, hasierako prezioaren ehuneko 15etik gora aldaraztea kontratuaren zenbatekoa, BEZik gabe, obra-kontratuen kasuan; edo ehuneko 10etik gora, BEZik gabe, gainerako kontratuen kasuan; edo, bestela, 20. artikulutik 23. artikulura aipatutako atalasetatik kontratu mota dela-eta aplikatzekoa dena gainditzea.

(ii) Aldatu behar diren obrak, zerbitzuak edo hornidurak gaur egungo zein etorkizuneko beste kontratu baten eremuan egotea, eta, betiere, kontratazio-espeditentearen izapidetzea hasita egotea.

Jarraian, sartutako aldaketaren legezkotasuna aztertzen da, bai eta bakoitzak aurreikusi gabeko kontratu-aldaketa gisa izapidetzeko SPKLn ezarritako baldintzak betetzen dituen ere:

Obra-unitateak	Zorrozki ezinbestekoak	SPKLren 205.2 artikuluko kasuak
PARTZELAKO HESKAIA ERAISTEA	Itxitura zaharraren heskaia kendu behar da, beste kokagune batean itxitura berria aurrez ikusten baita.	Obra egin behar da. Proiektuaren aurrekontuan ez da partida ekonomikorik aurreikusi. Teknika aldetik, komenigarria da kontratistak egitea lana, beste eraispen-lan batzuekin gauzatuko baita.
LORATEGIAN LURPERATUTA DAGOEN HORMIGOI ARMATUKO HABEA ERAISTEA	Hormigoizko habe bat azaldu da lurperatuta, eta kendu egin behar da eraikin berriaren zimenduak jartzea oztopatzen baitu.	Bat-batean eta ustekabez gertatutako egoera: ezin zitekeen jakin habea lurperatuta zegoenik. Ez du kontratuaren izaera globala aldatzen. Teknika aldetik, komenigarria da kontratistak egitea lana, beste eraispen- eta urbanizazio-lan batzuekin gauzatuko baita.
AISIALDI-EREMUKO ALTZARIAK DESMUNTATU ETA KENTZEA	Bengolarra parkeko altzari batzuk kendu behar dira, urbanizatu nahi baita.	Obra egin behar da. Proiektuaren aurrekontuan ez da partida ekonomikorik aurreikusi. Teknika aldetik, komenigarria da kontratistak egitea lana, beste eraispen- eta urbanizazio-lan batzuekin gauzatuko baita.
HARLAUZAK ETA ZOLATA LOTZEKO ALTZAIRUZKO HAGAK JARTZEA	Forjatua kendu denean, Bengolarako eraikinaren fatxada ahuldu da eta indartsu elkartzeko prozesua beharrezkoa da. Xede horrez, altzairu korrugatuko hagak erabiliko dira barneko forjatu berrien, fatxadaren eta kanpoko harlauzaren artean.	Bat-batean eta ustekabez sortutako egoera: ezin zitezkeen Bengolarra eraikinean egoera eta forjatuen kokapen zehatza ezagutu. Ez du kontratuaren izaera globala aldatzen.
FATXADETAN ETA BAOETAN ZENBAIT ZULAKETA	Kanpoaldeko Isolamendu Termikoaren Sistema (SATE) instalatu baino lehen, lehendik dauden markoetako eta baoetako gainazala prestatu behar da eta, horretarako, zulatzea ezinbestekoa da.	Obra egin behar da. Proiektuaren aurrekontuan ez da partida ekonomikorik aurreikusi. Teknika aldetik, komenigarria da kontratistak egitea lana SATE instalatzeko gainerako obrekin batera.
LINEA ELEKTRIKOEN KABLEAK	Elektrizitate-kapitulu bat falta dela detektatu da.	Obra egin behar da. Proiektuaren aurrekontuan ez da partida ekonomikorik aurreikusi. Teknika aldetik, komenigarria da kontratistak egitea lana, obrako gainerako instalazioekin txartatzen baita.
POLIMEROZKO LEIHO-ISURKIA, 32/48 CM ZABAL	Leiho-isurkiak zabaldu egin behar dira, Bengolarra eraikineko fatxadaren itxituraren neurri errealetara egokitu daitezzen. 32 eta 48 cm arteko zabalera	Obra handitu behar da proiektuko leiho-isurkiaren zabalera eskasa baitzen. Teknika aldetik, komenigarria da kontratistak egitea





	izan behar dute.	lana, arotzeria-obrarekin batera egingo baita.
SATE-N BIGARREN SARE INDARGARRIA	Beharrezkoa da Kanpoaldeko Isolamendu Termikoko Sisteman (SATE) 160 gramoko bigarren sare indargarria jartzea, sistemaren erresistentzia handitzeko, kontuan hartuta beheko solairuan non dagoen SATE.	Obra handitzeko beharra dago eta teknika aldetik kontrata da horretarako pertsona egokia; izan ere, hura da fatxadaren isolamendu osoaz arduratzen den instalatzailea. Teknika aldetik, komenigarria da kontratistak egitea lana SATE instalazioaren gainerako obrarekin batera.
BARNEKO AROTZERIAREN EGURREZKO AURREMARKOAK	Barneko ateetan aurremarkoak jartzea.	Obra egin behar da. Proiektuaren aurrekontuan ez da partida ekonomikorik aurreikusi. Teknika aldetik, komenigarria da kontratistak egitea lana, lehenik atea egin eta gero instalatuko baitu arotzeria.
R-90 BERMIKULITAREN PROIEKZIOA	Ezinbestekoa da bermikulita gainazalera osoan proiektatzea, suteen aurka babesteko eraginkorragoa baita. Gainera, denbora gutxiago behar da gauzatzeko.	Obra aldatu behar da, suteen aurka babesteko sistema eraginkorragoa hautatu baita.
R-90 INTUMESZENTEDUN PINTURA	Ez zen aurreikusi intumeszentedun pinturarik suteen aurka babesteko.	Obra egin behar da. Proiektuaren aurrekontuan ez da partida ekonomikorik aurreikusi.
DESMUNTATZEAK BIRJARTZEAK	ETA Egindako obra-unitateak desmuntatzea eta birjartzea, obra-eremu batzuetan aldatzeko, besteak beste, sabai aizunetan eta trenkada-multzoetan.	Obra egin behar da. Proiektuaren aurrekontuan ez da partida ekonomikorik aurreikusi. Teknika aldetik, ezinbestekoa da kontratista arduratzea obrez, eta behin betiko kokalekuan segurtatzea.
HORNIDURARAKO OBRA ZIBILA, AMVISA	Ohe bat eta hodian legardun ingurutzailera jarri behar dira, tarte linealetan mugi ez daitezen. Horrez gain, hormigoizko indargabetzaileak ere egin beharko dira hodiaren norabide aldatetan, bulkadei eutsi ahal izateko.	Obra egin behar da. Proiektuaren aurrekontuan ez da partida ekonomikorik aurreikusi. Zanga kontratistak egingo duenez, beharrezkoa da hark osatzea obrak, AMVISAK eskatutako baldintzetan.

Lehenengo kontratu aldaketaren ondorioz, hasierako aurrekontua % 2,30 handitu zen; bigarrenaren ondorioz, % 6,4; eta, hirugarrenaren ondorioz, % 7,17. Hortaz, % 15,94 handitu zen, eta ez zen % 50eko legezko muga gainditu.

2024ko urtarrilaren 16an, udal-arkitektoak prezio berriak onartzearen aldeko txostena egin zuen.

2024ko urtarrilaren 19an, Udaleko kontu-hartzaileak kontratuaren aldaketa izapidetzearen aldeko txostena egin zuen, kreditu egokia eta nahikoa baitzegoen indarreko aurrekontuko 342.622.000 aurrekontu-aplikazioan.

Aztertu da erantsi den dokumentazioa eta ikusi da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren zuzentarauen transposizioa egiten du Espainiako antolamendu juridikora) bigarren xedapen gehigarrian xedatzen denarekin bat datorrela.

Ikusi dira adierazitako aurrekariak eta zuzenbideko oinarriak; Udalbatzak, gehiengoz, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.** Onestea Bengolarrako kirol-instalazioen eraikinean Europar Batasunaren Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana-Next Generation EUK finantzatutako birgaitze- eta handitze-obren kontratuaren aldaketaren espedientea, hau da, jarraian zehazten diren obren prezio berriak onetsi ziren:

	Prezio berria duen partida			Kontratututako prezioa duen partida			Partida orekatua				Gehikuntzaren ehuneko, kontratuaren aldean
	unit.	Prezio unitarioa	EMA	unit.	Prezio unitarioa	EMA	0EMA	Kontratuaren aurrekontua	Kontratuaren aurrekontua, beharapen	Kontratuaren prezioa, beharapena eta	







									a barne	% 21eko BEZa barne		
1	Partzelako heskaia eraistea	217,35	19,96	<b>4.338,31</b>				<b>4.338,31</b>	5.162,58	5.000,46	<b>6.050,56</b>	% <b>0,21</b>
2	Lorategian lurperatutako HAKo habea eraistea	36,03	106,67	<b>3.843,32</b>				<b>3.843,32</b>	4.573,55	4.429,93	<b>5.360,21</b>	% <b>0,18</b>
3	Aisiarako eremuan altzariak desmuntatu eta kentzea	5,00	377,79	<b>1.888,95</b>				<b>1.888,95</b>	2.247,85	2.177,26	<b>2.634,49</b>	% <b>0,09</b>
4	Harlauzak eta zolata elkartzeko altzairuzko hagak	170,50	24,20	<b>4.126,10</b>				<b>4.126,10</b>	4.910,06	4.755,87	<b>5.754,60</b>	% <b>0,20</b>
5	Fatxadak eta baoak zultzea	30,00	197,21	<b>5.916,30</b>				<b>5.916,30</b>	7.040,40	6.819,31	<b>8.251,36</b>	% <b>0,28</b>
6	Linea elektrikoan kableak	1,00	64.407,05	<b>64.407,05</b>				<b>64.407,05</b>	76.644,39	74.237,53	<b>89.827,41</b>	% <b>3,09</b>
7	Polimerozko leiho-isurkia, 32/48 cm zabal	103,00	68,73	<b>7.079,19</b>	16,50	32,63	538,40	<b>6.540,80</b>	7.783,55	7.539,12	<b>9.122,33</b>	% <b>0,31</b>
8	SATEn bigarren sare indargarria	419,61	23,54	<b>9.877,62</b>				<b>9.877,62</b>	11.754,37	11.385,24	<b>13.776,15</b>	% <b>0,47</b>
9	Barneko arotzeriaren egurrezko aurremarkoa	28,00	110,68	<b>3.099,04</b>				<b>3.099,04</b>	3.687,86	3.572,05	<b>4.322,18</b>	% <b>0,15</b>
10	R-90 bermikulturaren proiektzioa	318,00	57,48	<b>18.278,64</b>	190,16	18,99	3.611,14	<b>14.667,50</b>	17.454,33	16.906,21	<b>20.456,51</b>	% <b>0,70</b>
11	R-90 intumeszentedun pintura	129,30	77,55	<b>10.027,22</b>				<b>10.027,22</b>	11.932,39	11.557,67	<b>13.984,78</b>	% <b>0,48</b>
12	Desmuntatzeak eta birjartzeak	1,00	6.529,84	<b>6.529,84</b>				<b>6.529,84</b>	7.770,51	7.526,49	<b>9.107,06</b>	% <b>0,31</b>
13	Obra zibila, AMVISA	1,00	14.084,60	<b>14.084,60</b>				<b>14.084,60</b>	16.760,67	16.234,34	<b>19.643,55</b>	% <b>0,68</b>
	<b>Guztira</b>			<b>153.496,17</b>			<b>4.149,53</b>	<b>149.346,64</b>	<b>177.722,50</b>	<b>172.141,48</b>	<b>208.291,19</b>	% <b>7,17</b>

**BIGARRENA.** Kontratatari entzuteko izapidea betetzat jotzea, kontuan hartuta prezio kontrajarrien aktan jasotako adostasuna.

**HIRUGARRENA.** 208.291,19 euroko zenbatekoa onetsi eta xedatzea, aldaketak behar duen kontratuaren prezio-igoerari dagokiona. Onartutako prezio kontrajarriak proiektuan sartuko dira gauzatutako obraren ziurtagiriak egiteko.

**LAUGARRENA.** Ebazpen honen berri ematea Kontu-hartzailezari eta Diruzaintzari, dagozkion kontabilitate idatzoharrak egin ditzaten.

**BOSGARRENA.** Obrak egikaritzeko epea 2024ko maiatzaren 31ra arte luzatzea. Kontratatari obra-unitate berrien egikaritzari buruzko plangintza- eta berrantolaketa-dokumentua aurkeztu beharko du, aurrez aurreikusitakoekin batera.

**SEIGARRENA.** Ebazpen honen berri ematea kontratuaren adjudikaziodun den INDENORT PV ABEEri eta SLU PROVISER IBÉRICA SLU ABEEri, dagozkion errekursoak adierazita, eta kontratuaren eta/edo obra-proiektuaren aldaketa formalizatzeko deitzea.

**ZAZPIGARRENA.** Erabaki honen berri ematea obraren zuzendaritzari.

**51/2024 espedientea. 2024 urterako Urteko Araudi Plana onesteko irizpena.**

**Aldekoa**

**Bozketa mota: ohikoa/aho batez**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 132. artikulua ezartzen duenez, Administrazio guztiek onartu eta publiko egin behar dute urteko araudi-plan bat, hurrengo urtean onartzeko egingo diren lege- edo araudi-ekimenak jasotzen dituen.

Aurreikuspen horrek ordenamendu juridikoaren gardentasuna eta aurreikuspen-garritasuna handitzea helburu du, eta araudia ahalik eta aplikazioko gainerako arauetara koherentzia handienarekin erabiltzen saiatzen da, eta horrela segurtasun juridikoaren printzipioa betetzen laguntzen du. Aldi berean, araudiaren ekimenaren erabileran gardentasuna handitzen da, edukia argitara emanez, aukera ematen baitzaie gainerako administrazio publikoek zein herritarrek aurretiaz ezagutzeko administrazio jakin batek zer





arau onartzea aurreikusi duen.

2022ko urtarrilaren 20ko Idazkaritzaren txostena ikusita eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, osoko bilkurak aho batez **ERABAKI DU**:

**LEHENENGOA.-** Zigoitiko Udalaren 2023. urterako urteko araudi-plana onartzea, erantsi egin dena.

**BIGARRENA.-** Zigoitiko Udalaren urteko araudi-plana argitaratzea udalaren webean, [www.zigoitia.eus](http://www.zigoitia.eus).

**ERANSKINA:**

<b>ALKATETZA, EKONOMIA, HIRIGINTZA ETA FUNTZIO PUBLIKOKO ARLOA</b>			
MOTA	EKIMENAREN IZENA	ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA	ARDURADUNA
Ordenantza	Ordenantza fiskalen berrikuspena	Ez	Alkatetza
Hirigintza-ordenantza	Hiri Antolamenduko Plan Orokorren hasierako onarpena	Bai	Alkatetza
Hirigintza-ordenantza	Arau Subsidiarioen aldaketa puntualaren hasierako onespena _ Babes publikoko etxebizitza Muruan	Bai	Alkatetza
<b>EUSKARA, KULTURA, HEZKUNTZA, INGURUMENA, KOMUNIKAZIOA ETA BIZIKIDETZA ARLOA</b>			
MOTA	EKIMENAREN IZENA	ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA	ARDURADUNA
Ordenantza / Araudia	Gorbeiaiko parke mikologikoaren ordenantza eta araudia sortzea	Bai	Arloaren zinegotzitzaordea
Ordenantza	Hondakinen kudeaketa arautzen duen ordenantza sortzea, dagokion zehapen-araubidea barne	Bai	Arloaren zinegotzitzaordea
<b>BERDINTASUN ETA GAZTERIA ARLOA</b>			
MOTA	EKIMENAREN IZENA	ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA	ARDURADUNA
Ordenantza	Aldatuko diren ordenantzak zuzentzea, hizkuntza inklusiboa erabiliz	Ez	Arloaren zinegotzitzaordea
<b>KIROLA, GIZARTE-ONGIZATE, LANKIDETZA, NEKAZARITZA ETA MENDI ARLOA</b>			
MOTA	EKIMENAREN IZENA	ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA	ARDURADUNA

**600/2023** espedientea. **Musika-eskolako proiektua idazteko eta birgaitze-obra egikaritzeko kontratua adjudikatze irizpena.**

**Aldekoa**                      **Bozketa mota:** izenduna  
Aldekoak: 5; aurkakoak: , abstentzioak: 0





Aldekoak	JAVIER GORBEÑA GARCÍA (EAJ- PNV) CARLOS ALBERTO ITURRIOZ MALAINA (EAJ- PNV) MAITE COBO BARCALA (EAJ- PNV) IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA (EAJ- PNV) ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN (PP)
Aurkakoak	EDUARDO LORZA GARCÍA (EH BILDU) AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ (EH BILDU) XABIER NAFARRATE CADIÑANOS (EH BILDU) MIKEL ISASMENDI TXURRUKA (EH BILDU)
Abstentzioak	-

Ikusi dira honako aurrekari hauek:

Espedientea	Prozedura
80/2022	DUS 5000 programaren laguntzetarako deialdia: udaletxe, musika-eskola eta argiteria publikoaren energia-efizientzia hobetzea.

Espedientea	Prozedura
498/2022	Musika eskolan energia-efizientzia hobetzeko obrarako energia-auditoretzaren eta memoria teknikoaren zerbitzuak kontratatzea, DUS 5000 deialdian dirulaguntza eskatzeko.

Ikusi dira adjudikatu nahi den kontratuaren ezaugarriak:

<b>Kontratu mota:</b> Obren eta zerbitzuen kontratu mistoa (prestazio nagusia: obrak)	
<b>Kontratuaren xedea:</b> energia-kontsumoa eta CO <sub>2</sub> isuriak murrizteko birgaitze energetikorako obren proiektua idaztea eta egikaritzea, eta, horretarako, energia-eskaria murriztea eta musika eskolaren eraikineko instalazioen errendimendua hobetzea. Hala, inguratzailea birgaituko da eta instalazio berriak jarriko dira sorrera termikorako, fotovoltaiorako eta argiteriarako. Gainera, barnealdea berritzeko obrak egingo dira oztopo arkitektonikoak kentzeko eta erabilera-programa berrantolatuko da musika-irakaskuntzako zentro ofiziala izan dadin.	
<b>Kontratazio-prozedura:</b> irekia.	<b>Lizitazio mota:</b> ohikoa
<b>CPV kodea:</b> 71221000-3, 71240000-2, 45200000-9, 45210000-2, 45220000-5	
<b>Kontratuaren balio zenbatetsia:</b> 954.096,21 €	
<b>Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua (BEZik gabe):</b> 954.096,21 €	<b>BEZa:</b> 200.360,20 €
<b>Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua, BEZa barne:</b> 1.154.456,41 €	
<b>Gauzatze-iraupena:</b> 7 hilabete.	

Ikusi da izapidetu den kontratazio-espedientea:

Agiria	Eguna/zk.
Justifikazio-memoria	2023/10/16
Idazkariaren txostena	2023/10/16
Preskripzio teknikoaren agiria	2023/10/17
Administrazio-klausulen agiria	2023/10/17





Aurretiazko fiskalizazio-txostena	2023/10/17
Espedientea eta administrazio-agiria eta agiri teknikoa onesteko Udalbatzaren erabakia	2023/10/23
Lizitazio iragarkia	2023/10/30
Udal-arkitektoaren txostena	2023/12/20
Kontratazio Mahaiaren akta, A eta C fitxategi elektronikoak irekitzeari buruzkoa	2023/12/21
Kontratazio Mahaiaren akta, C fitxategi elektronikoa baloratzeari buruzkoa, kontratatzailearen profilean argitaratzea	2023/12/21 9:57
Kontratazio Mahaiaren akta, B fitxategi elektronikoa irekitzeari eta adjudikazio-proposamenari buruzkoa.	2023/12/21 10:00
Errekerimendua lizitatzileari	2023/12/22
Jakinarazpena eskuratzeko data	2023/12/26
Dokumentazioa aurkeztea	2024/01/09
D fasearen aurretik, fiskalizazio-txostena.	2024/01/17

Aztertu da erantsi den dokumentazioa, ikusi da idazkariaren txostena, eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren zuzentarauen transposizioa egiten du Espainiako antolamendu juridikora) bigarren xedapen gehigarrian xedatzen denarekin bat etorritik, Udalbatzak, gehiengoz, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.** Enpresa lizitatzailleek aurkeztutako proposamenak sailkatzea, kontuan hartuta Kontratazio Mahaiaren proposamena, honako behearazko ordena honekin bat:

Kop.	ENPRESA LIZITATZAILEA	C FITXATEGI ELEKTRONIKOAREN GUZTIZKO PUNTUAZIOA (gehienez, 30 puntu)	B FITXATEGI ELEKTRONIKOAREN GUZTIZKO PUNTUAZIOA (gehienez, 70 puntu)	AURKEZTUTAKO ESKAINTZAREN GUZTIZKO PUNTUAZIOA (gehienez, 100 puntu)
1	CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS SA	9 puntu.	15 puntu.	24 puntu.

**BIGARRENA.** CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS SAr adjudikatzea energia-kontsumoa eta CO<sub>2</sub> isuriak murrizteko birgaitze energetikorako obren proiektua idaztea eta egikaritzea, eta, horretarako, energia-eskaria murriztea eta musika eskolaren eraikineko instalazioen errendimendua hobetzea, haren eskaintzan agertzen diren eta administrazio-klausula partikularren agirian eta preskripzio teknikoaren agirian zehazten diren baldintzetan.

**HIRUGARRENA.** Dagokion gastua honako aurrekontu-aplikazio honen kargura xedatzea:

Ekitaldia	Aurrekontu-aplikazioa	Zenbatekoa
2024	333.622.001	1.131.201,78 euro

**LAUGARRENA.** Erabaki honen berri ematea Kontu Hartzaitzari eta Diruzaintzari, dagozkion idatzoharrak egiteko.

**BOSGARRENA.** Adjudikazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzea 15 eguneko epean.

**SEIGARRENA.** Udal-arkitektoa izendatzea kontratuaren arduradun.

**ZAZPIGARRENA.-** Kontratuaren adjudikaziodun CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS SAr erabaki hau jakinaraztea eta kontratua sinatzeko dei egitea.

**ZORTZIGARRENA.** Kontratua formalizatzeko iragarkia kontratatzailearen profilean





argitaratzea gehienez ere 15 eguneko epean, kontratua burutu ondoren eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen II. eranskinean jasotako edukiarekin batera.

**BEDERATZIGARRENA.** Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari kontratuaren oinarritzko datuak jakinaraztea, honako hauek barne: adjudikaziodunaren izena, adjudikazioaren zenbatekoa, eta balio erantsiaren gaineko zergari dagokion xehakapena.

**HAMARGARRENA.** Herri Kontuen Euskal Epaitegira kontratuaren dokumentuaren kopia egiaztatua eta ondoriozko espedientearen laburpena igortzea. Hori guztia kontratua formalizatu eta hiru hilabeteko epean.

**52/2024 espedientea. Udalerrian lapurretak ugaritu direnez segurtasun-neurriak hartzeari buruzko mozioa**

<b>Aldekoa</b>	<b>Bozketa mota:</b> izenduna Aldekoak: 8; aurkakoak: 0, abstentzioak: 1
Aldekoak	JAVIER GORBEÑA GARCÍA (EAJ- PNV) CARLOS ALBERTO ITURRIOZ MALAINA (EAJ- PNV) MAITE COBO BARCALA (EAJ- PNV) IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA (EAJ- PNV) EDUARDO LORZA GARCÍA (EH BILDU) AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ (EH BILDU) XABIER NAFARRATE CADIÑANOS (EH BILDU) MIKEL ISASMENDI TXURRUKA (EH BILDU)
Aurkakoak	-
Abstentzioak	ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN (PP)

Alkateak bozketarako aurkeztu du Alderdi Popularraren udal-taldeak udalerrian lapurretak ugaritu direnez segurtasun-neurriak hartzeari buruz aurkeztutako mozioa gaitzerrendan sartzearen berrespena, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 eta 97.2 artikuluekin bat. Aho batez onartu da.

Elisabeth Otsoa de Eribe Román zinegotziak, Alderdi Popularraren udal-taldearen izenean, honako mozio hau aurkeztu du:

*“Azken hilabeteetan jakin dugu gure herrietan gero eta lapurreta gehiago egiten ari direla eta horrek urduritasuna eragin du herritarren artean. Joan den abenduan istilu bat izan zen Apodaka herrian eta herritarrek hartu behar izan zuten parte. Gure ustez, ez dago nahikoa poliziarik gure herri guztiak zaindu eta segurtatzeko; beraz, honako mozio hau proposatzen dugu:*

- 1. Zigoitiko Udalak gure herriak eta etxebizitzak zaintzeko segurtasun-patruilak bi hilabetean abian jartzeko eskatzen du, batez ere gaez, gure herritarrak babestu eta lasaitzeko.*
- 2. Zigoitiko Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio Minoien taldea handi dezala eta berreskura dezala gaueko patruila landagunean, helburu bererako.*

Zinegotziak adierazi du kezkatuta dagoela udalerrian gero eta lapurreta gehiago egiten direnez. Horrek izutu egiten ditu herritarrak, babesgabe sentitzen baitira, eta sentsazio hori areagotu egiten da biztanle-guneak txikiak baitira eta osoa sakabanatuta baitaude. Azpimarratu du oso arriskutsua dela herritarrentzat nor bere prebentzio-neurriak hartzea. Horregatik guztiatik, udal-gobernuari eskatzen dio har ditzala udalerrian lapurreten eragina murrizten lagunduko duten neurriak.

EAJ-PNV eta EH BILDU udal-taldeen ordezkapen-zuzenketa bat aurkeztu dute.





Honela dio:

*“Azken hilabeteetan gure udalerria delitugile profesional antolatuen helburu bihurtu da. Gure etxebizitzetan indarrez sartzen dira dirua eta bestelako objektu pertsonalak lapurtzeko, askotan balio sentimentala materiala baino handiagoa izan arren. Egoera horrek kezka, ziurgabetasuna eta frustrazioa eragin ditu; izan ere, gure etxeek salbu sentitzeko tokiak izan behako lukete, baina erasotzen ari dira, eta ezin dugu ezer egin hori ekiditeko.*

*Udalbatzako kide guztiek sentimendu bera dute, arduradun politikoak diren heinean eta egoeraren biktimak izan daitezkeen heinean, eta ulertzen dituzte bitarteko desberdinak erabiliz arazoa konpontzeko eskatzen duten eskariak.*

*Lapurretak antzematen hasi zirenetik, argi eta garbi ikusi da gure udalerrietan poliziaren presentzia gero eta handiagoa dela. Egunero kontrolak egiten dira udalerriko zenbait puntutan, eta maiz patruilak ikus ditzakegu, baina, tamalez, horrek guztiak ez du arazoa konpondu.*

*Era berean, administrazio batzarretako ordezkariak bilerak izan dituzte Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailarekin delitugileen jarduteko modua jakinarazteko eta lapurretak edo biktimak izatea saihesteko hartu behar diren neurrien berri emateko. Halaber, jakinarazi da atxiloketak gertatzen direnean ere, delitugileak azkar uzten direla libre, egozten zaien delituaren ezaugarriak direla eta; hortaz, poliziaren lanak ere eraginkortasun mugatua du.*

*Horregatik, Zigoitiko Udalak:*

*1. Eraso horien biktima izan diren pertsona guztiei babesa eskaini eta ulermena erakusten die.*

*2. Herritarrei gomendatzen die behar duten guztietan jo dezatela segurtasun-indarretara laguntza bila eta ez dezatela beren kontura jardun, segurtasunerako eta osotasunerako arriskutsuagoak izan baitaiteke”.*

Elisabeth Otsoa de Eribe Román zinegotziak adierazi du ados dagoela zuzenketaren testuarekin; hala ere, iruditzen zaio jarduketa-proposamena ez dela nahikoa. Hortaz, abstenitu egingo da.

Alkate jaunak galdetu dio ea zer gehitu dezaketen. Zinegotziak adibidez gisa jarri du foru-poliziarri gauez errefortzua jartzeko eskatzea.

Xabier Nafarrate Cadiñanos zinegotziak esan du dagoeneko polizia sako daudela udalerriko sarrerak kontrolatzen.

Alkate jaunak ordezkapen-zuzenketa bozkatzeko eskatu du eta gehiengoz onartu da.

**389/2023 espedientea. “Zigoitia” izeneko VI-10.180 ehiza-barrutiaren Ehiza Antolatzeko Plan Teknikoaren adostasun-proposamena.**

**Aldekoa**

**Bozketa mota:** ohikoa/aho batez

Alkate jaunak eskatu du bozkatzeko “Zigoitia” izeneko VI-10.180 ehiza-barrutiaren Ehiza Antolatzeko Plan Teknikoaren adostasunari buruzko gaia eta ehiza-barrutia berritzeko eskaera eguneko gai-zerrendan sartzearen berrespena, bat etorritz Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 eta 97.2 artikuluekin. Aho batez onetsi dute.

Alkate jaunak eskatuta, irizpena bozkatu da, eta aho batez onetsi da. Hitzez hitz honako hau dio:

Zigoitia udalerrian dagoen “Zigoitia” izeneko VI-10.180 ehiza-barrutiaren ehiza-





aprobetxamendua berritzea sustatzeko. Ehiza-barruti hori Zigoitiko Udalaren, Etxaguen, Manurga, Murua eta Ondategi administrazio-batzarren jabetzako lursailek eta jabetza partikularreko lursailek osatzen dute.

Aintzat hartuta ehiza-aprobetxamendua kudeatzeko aukera dagoela eta komeni dela honako arrazoi hauengatik:

Ehiza, gaur egun, jarduera kultural, sozial eta ekonomikoa da, baina, batez ere, ezinbestekoa da oreka biologikoei eta landa-inguruneko erabilera tradizionalei eusteko, ekosistemak eta espezie basatien arteko oreka mantentzen laguntzen baitu. Era berea, kontatu honek lagundu egiten du larre eta laboreetan ehiza-espezieen kalteak kontrolatzen.

Aintzat hartu da Arabako Lurralde Historikoko Ehizaren ekainaren 14ko 8/2004 Foru Arauaren 7. artikulua, zeinaren arabera ehiza-aprobetxamendu oro honako hauen arabera egin beharko da: *“Ehizaren Antolamenduko Plana, aprobetxamendua esleitu aurretik egina. Plan hori izango da, haren indarraldian, ehiza barrutiaren ezaugarri zinegetikoak eta aprobetxamendu aukerak zehaztuko dituen esparru dokumentua”*. 3. atalean honako hau dio: *“Ehiza planak onartzeko espedientean **dagozkion erakunde titularren onespena** eman izana azaldu beharko da”*.

Aintzat hartu da Ehizaren martxoaren 17ko 2/2011 Legearen 16. artikulua: *“Ehiza-barruti gisa izendatu ahal izateko, ehiza antolatzeke plan teknikoa idatzi beharko da eta alde zurratik aurkeztu beharko da ehiza-barrutia eratzeko eskabidearekin bat”*.

Aintzat hartu da lege horren 32. artikulua: *“ehiza antolatzeke plan tekniko bati jarraituz ustiatu behar da ehiza. Plan hori teknikari gaituek idatziko dute, eta **foru-aldundiak onartu beharko du”***.

Ikusi da Etxaguen, Manurga, Murua eta Ondategiko kontzejuek, dagozkien kontzejuetan hartutako erabakietan, beren jabetzako lurrak eta mendiak Zigoitia VI-10.180 ehiza-barrutian integratzea onartu dute 10 urtez berritzeko. Titulartasuna Zigoitiko Udalarari eman diote.

Ikusi da 2024ko urtarrilaren 25ean ARAN SERVICIOS MEDIOAMBIENTALES SL enpresak Ehiza Antolatzeke Plan Teknikoaren proiektua aurkeztu duela.

Aintzat hartu da, Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduaren 4. artikulua arabera, onura publikoko mendia zerbitzu publikorako jabari publikoko ondasuna dela, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.f) artikuluan esleitutako eskumenen arabera, Udaltzako, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.** Adostasuna ematea ARAN SERVICIOS MEDIOAMBIENTALES SL enpresak 2024ko urtarrilaren 25ean idatzitako “Zigoitia” izeneko VI-10.180 ehiza-barrutiaren Ehiza Antolatzeke Plan Teknikoari, eta adostea ehiza-aprobetxamendua zeharkako kudeaketaren bidez egingo dela, lehiaketa publikoaren bidez adjudikatuta.

**BIGARRENA.** Arabako Foru Aldundiari eskatzea “Zigoitia” izeneko VI-10.180 ehiza-barrutia berritzeko.

**HIRUGARRENA.** Alkateari ahalmena ematea ehiza-barrutia berritzeko beharrezkoak diren izapideak egin ditzan.

**66/2024 espedientea. Udal-langileari, Elkarkidetzaren bidez, Gizarte Segurantzza Publikoko pentsioen osagarria aitortzeko proposamena.**

**Aldekoa**

**Bozketa mota:** ohikoa/aho batez

Alkateak bozketarako aurkeztu du udal-langileari, Elkarkidetzaren bidez, Gizarte Segurantzza Publikoko pentsioen osagarria aitortzeko proposamena gai-zerrendan sartzearen





berrespena, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 eta 97.2 artikuluekin bat. Aho batez onartu da.

Alkate jaunak eskatuta, irizpena bozkatu da, eta aho batez onetsi da. Hitzez hitz honako hau dio:

Ikusi da, 20/2021 Legean aurreikusitakoaren arabera, aldi baterako enplegua merezimendu-lehiaketa bidez egonkortzeko prozesua, zeinak mantentze-lanetako langilearen plaza bat barne hartzen duen. 2022ko abenduaren 19ko Alkatetzaren 567 Ebazpenaren bidez egin zen deialdia.

Ikusi da 2023ko abenduaren 12ko Alkatetzaren 569 Dekretua, RAÚL ACEVES MARTÍNEZ DE MARIGORTAri, hautaketa-prozesua gainditu ostean, lanpostu horretarako lan-kontratu mugagabe egitea erabakitzeakoa.

Langileak aurreko lanpostuan zegoenetik hartzen du parte ELKARKIDETZAK sustatutako euskal sektore publikoko pentsioen sistema osagarrian eta ekarpenak egiten jarraitzeko asmoa erakutsi du.

Ikusi da Udalhitz langile lan-kontratadunen hitzarmen kolektiboaren 94. artikulua: *“Erakundea Elkarkidetzako Pentsio Sistema Osagarriarekin lotu beharko da; hala ere, langileak pentsio-sistemara era boluntarioan atxikitzen direla bermatu beharko du”*.

Zigoitiko Udala, Udalbatzaren 1989ko maiatzaren 24ko erabakiaren bidez, ELKARKIDETZA gizarte-aurreikuspeneko erakundeari atxiki zitzaion, erakunde hori osatu zen datarekiko atzeraeraginezko ondorioekin.

Ikusi da hitzarmen horren 94 bis artikulua:

*“Ondorengo hauek dira 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera langileek zein erakundeek ordaindu behar dituzten kotizazioak, 14 hilekotan:*

TALDEA		OINARRIAK	TITUL. KUOTA	ERAK. KUOTA
30/1984 Legeko A taldea	7/2007 Legeko A1 azpitaldea	45.845,33	114,61	114,61
30/1984 Legeko B taldea	7/2007 Legeko A2 azpitaldea	37.436,00	93,59	93,59
30/1984 Legeko C taldea	7/2007 Legeko C1 azpitaldea	30.711,33	76,78	76,78
30/1984 Legeko D taldea	7/2007 Legeko C2 azpitaldea	25,667,67	64,17	64,17
<b>30/1984 Legeko E taldea</b>	<b>7/2007 Legeko Elkartea profesionalak</b>	<b>25,667,67</b>	<b>64,17</b>	<b>64,17</b>

Ikusi da Elkarkidetzaren Erregelamenduen 12. artikulua: *“EAEko KPIak uneko urteko azaroaren eta aurreko urteko azaroaren artean izandako igoera aplikatuko zaie hileko gutxieneko pentsioei, urtero”*. Hortaz, ekarpenak baldintza horietan eguneratu beharko dira.

Aintzat hartu da 2023rako Estatutako Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 31/2002 Legea: *“Sektore publikoan ekarpenak egin ahal izango dira enpleguko pentsio-planerako edo aseguru kolektiboaren kontratuetarako, betiere orokorrean aurreko atalean ezarritako igoera gainditzeko ez bada”*.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.i) artikuluek ematen dizkion ahalmenak erabiliz, Udalbatzak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.** Aitortzea RAÚL ACEVES MARTÍNEZ DE MARIGORTA udal-langileari Elkarkidetzak sustatutako Euskal sektore publikoko pentsioen sistema osagarrian, Zigoitiko Udalaren kargura, ekarpen gehigarriak egiteko eskubidea.

**BIGARRENA.** Erabaki hau jakinaraztea interesdunari eta dagozkion errekurtsioak







adieraztea.

## B) KONTROL-JARDUERA

### 554tik 6ra bitarteko dekretuen kontu ematea

2023-0554 DEKRETUA [Deialdiaren dekretua]

2023-0555 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, desgaitasuna duen pertsonari aparkatzeko txartela emateko]

2023-0556 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxabarri Ibiñako 6 poligonoko 723 partzelan dagoen etxebizitzaren estalkian panel fotovoltaikoak eta geotermia instalatze aldera obra txikiaren lizentzia emateko]

2023-0557 DEKRETUA [Alkatetzaren Dekretua, Apodakako 1 poligonoko 699 partzelan dagoen etxebizitzaren estalkian panel fotovoltaikoak instalatze aldera obra txikiaren lizentzia emateko]

2023-0558 Dekretua [Alkatetzaren Dekretua, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren (HLBGZ) likidazioaren aurka jarritako aukerako berraztertze-errekurtsoa onesteko]

2023-0559 Dekretua [Alkatetzaren Dekretua, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren (HLBGZ) likidazioaren aurka jarritako aukerako berraztertze-errekurtsoa onesteko]

2023-0560 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari buruzko likidazioak onesteko]

2023-0561 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Larrinoako saneamendu-sarea hobetze aldera obraren kontratua adjudikatzeke]

2023-0562 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari buruzko likidazioak onesteko]

2023-0563 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Hirigintza Arloko arkitekto-buru lanpostuan karrerako funtzionarioa izendatzeko]

2023-0564 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren likidazioa ezeztatzeke]

2023-0565 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, JA ONDATEGIri emandako 2023ko dirulaguntza justifikatzeko epearen luzapena onesteko]

2023-0566 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, sutarako sortak ateratzeko, Zizkiño udalerrian OPMko baso-pista konpontzeko kontratu txikia adjudikatzeke]

2023-0567 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, hiri-lursailen balio-gehikuntzaren zergari buruzko likidazioak onesteko]

2023-0568 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, hiri-lursailen balio-gehikuntzaren zergari buruzko likidazioak onesteko]

2023-0569 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, mantentze-lanetako langilearen





lan-kontratua onesteko]

2023-0570 DEKRETUA [Deialdiaren dekretua]

2023-0571 DEKRETUA [Deialdiaren dekretua]

2023-0572 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, arkitekto teknikoaren lanpostuan karrerako funtzionarioa izendatzeko]

2023-0573 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, T/2023/28 kontabilitate-zerrendako ordainketak onesteko]

2023-0574 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 7/2023 kreditu gehigarria onesteko]

2023-0575 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gorbeialdea Kuadrillak Zigoitiko Udalari emandako zerbitzuen gastua onesteko eta aurrerakin partziala ordaintzeko agintzeko]

2023-0576 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, hiri-ondasunen gaineko zergaren zerga-kuota partziala itzultzea ukatzeko]

2023-0577 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxabarri Ibiñako SAUI-ren ondoriozko partzelan (Etxabarri Ibiñako 6 poligokoko 1351 katastro-partzela) biltegi-pabiloia egiteko obra handiko lizentzia emateko]

2023-0578 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, obra amaierako dokumentazioa eskatzeko eta jarduketa klandestinoak izan daitekeela eta lizentziaren iraungitzea ohartarazteko]

2023-0579 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Berrikanoko 6. poligonoko 80. partzelan etxebizitzari atxikitako trastelekua eraikitzeko emandako obra handiko lizentziari uko egiteko]

2023-0580 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Udaletxerako larrialdietarako argiak hornitzeko kontratu txikia adjudikatzeko]

2023-0581 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Keturako memoria historikoko ibilbideko seinaleak indartzeko laguntza teknikoko zerbitzuen kontratu txikia adjudikatzeko eta hari9 buruzko informazioa emateko udal-webgunea eguneratzeko]

2023-0582 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, hiri-lursailen balio-gehikuntzaren zergari buruzko likidazioak onesteko]

2023-0583 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, azoka solidarioa egiteko udal-pilotalekua erabiltzeko baimena emateko]

2023-0584 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, zerga-likidazioari buruzko dokumentazioa zabaltzeko errekerimendua egiteko]

2023-0585 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxabarri Ibiñako 6 poligonoko 1.111 partzelan pabiloia, bateriak kargatzeko aretoa eta erregai-depositua egiteko obra-lizentzia emateko]

2023-0586 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Eribeko 5 poligonoko 625 partzelan egindako barne-urbanizazioko obrak lehenengoz okupatzeko lizentzia emateko]

2023-0587 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, obra-lizentzia emateko prozedura amaitzeko, eskaeran atzera egiteagatik]

2023-0588 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxabarri Ibiñako 6. poligonoko 754. partzelan familia bakarreko etxebizitza eraikitzeko obra handiko lizentzia emateko]

2023-0589 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, dokumentazioa eskatzeko eta





obra-lizentziaren iraungitzea ohartarazteko]

2023-0590 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Acosta/Okoiztako 5. poligonoko 1.207 partzelan kirol-kantxa estaltzeko obrak lehenengoz okupatzeko lizentzia emateko]

2023-0591 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxabarri Ibiñako 1 poligonoko 603 partzelan hirigintza-legezketasuna leheneratzeko espedientea artxibatze]

2023-0592 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Berrikanoko 6 poligonoko 1.330 partzelan dagoen etxebizitzaren estalkian panel fotovoltaikoak instalatze aldera obra txikiaren lizentzia emateko]

2023-0593 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, gurpil-oholen (skate) bidezko irristaketa-ikastaroa egiteko zerbitzuen kontratu txikia adjudikatze]

2023-0594 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxabarri Ibiñako San Esteban ermitari buruzko historiaren informazio-kartelak hornitu eta instalatzeko kontratu txikia adjudikatze]

2023-0595 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Zigoitiko XXXV. birla-txapelketaren finalean opari gisa emateko Gabonetako saskiak hornitze aldera kontratu txikia adjudikatze]

2023-0596 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Eribeko 5 poligonoko 625 partzelaren kanpo-urbanizazioa hartze]

2023-0597 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, OPMko 2023ko sutarako sortak bilketa-lekuetara garraiatzeko zerbitzuen kontratu txikia adjudikatze]

2023-0598 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Kalifikazio Epaimahaia izendatzeko eta onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onesteko]

2023-0599 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gorbeia Haurreskolako 2022-2023 ikasturteko matrikula-gastuak ordaintzeko eskatutako dirulaguntzak ukatzeko]

2023-0600 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, birpartzelazio-proiektua onesteko]

2023-0601 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, "Zigoitia" VI-10180 ehiza-barrutiko Ehiza Antolatze Plan Teknikoa egiteko zerbitzuen kontratu txikia adjudikatze]

2023-0477 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2023ko abenduko aparteko nominak ordaintzea onesteko]

2023-0603 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, T/2023-30 kontabilitate-zerrendako ordainketak onesteko]

2023-0604 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Apodakako 6 poligonoko 144 partzelan lizentziarik gabeko obra eta jardueri dagokienez, berraztertze errekurtsoari eta erakunde errentariari entzunaldia emateari buruzkoa]

2023-0605 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, HAPO idazten jarraitzeko zerbitzuen kontratuaren lizitazioa onesteko]

2023-0606 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, udalerrri barruko garraio-zerbitzuen lizitazioa onesteko]

2023-0607 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitazileari dokumentazioa eskatzeko]

2023-0608 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Bengolarra eraikina eraberritzeko obraren 19. ziurtagiria onesteko]





2023-0609 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxagueneko 3 poligonoko 313 partzelan dagoen etxebizitzaren estalkian panel fotovoltaikoak instalatze aldera obra txikiaren lizentzia emateko epeak eteteko]

2023-0610 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gizarte eta Kultur Zentroko egongela aluminiozko arotzeria eta beira dituen ate lerragarriaren bidez banatzeko instalazioaren obra txikiaren kontratua adjudikatzeko]

2023-0611 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Berrikanoko 6 poligonoko 1.130 partzelan dagoen familia bakarreko etxebizitzan gasolio-galdararen ordeztu geotermia-galdara jartzeko obra txikiaren lizentzia ukatzeko]

2023-0612 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, T/2023/31 kontabilitate-zerrendako ordainketak onesteko]

2023-0613 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2023ko abenduaren 19ko eta 24ko Olentzero eta Mari Domingi jarduerena]

2023-0614 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Manurgako 2 poligonoko 350 partzelan finka ixteko eta hodidun pasabidea jartzeko obra txiki lizentzia emateko epeak eteteko]

2023-0615 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, San Esteban ermitaren inguruan gunea egokitzeko obraren faktura onesteko]

2023-0616 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Zuiako Udaleri 2023ko denboraldian Zigoitiko herritarrek igerilekuak erabiltzeagatiko tasaren aldea ordaintzeko]

2024-0001 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, desgaitasuna duen pertsonari aparkatzeko txartela emateko]

2024-0002 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, langileen maila aitortzeko]

2024-0003 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2023 ikasturtean kulturako unean-uneko dirulaguntzak emateko]

2024-0004 DEKRETUA [Alkatetzaren Dekretua, Apodakako 1 poligonoko 668 partzelan dagoen etxebizitzaren estalkian panel fotovoltaikoak instalatze aldera obra txikiaren lizentzia emateko]

2023-0005 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Berrikanoko 6 poligonoko 1.130 partzelan dagoen familia bakarreko etxebizitzan gasolio-galdararen ordeztu geotermia-galdara jartzeko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0006 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Buruaga herriko 6. poligonoko 211. Partzelan hormigoi inprimatuko zolata egite aldera obra txikiaren lizentzia emateko]

### **Alkatetzaren txostenak**

#### **OBRA PILOTALEKUAN:**

Alkate jaunak jakinarazi du plaka fotovoltaikoak jartze aldera pilotalekuko egitura sendotzeko obrak Aste Santuan eta Pazko Astean egingo direla, instalazioan egiten diren kirol-jardueren egutegia ahalik eta gutxien aldatzeko.

#### **OTSAILEKO BATZORDEA ETA UDALBATZA**

Alkate jaunak jakinarazi du otsaileko Informazio Batzordearen eta Udalbatzaren





bilkurak otsailaren 19an eta 26an egingo direla, hurrenez hurren.

### C) ESKAERAK ETA GALDERAK

#### Eskaerak eta galderak

##### MANTENTZE-LANETAKO LANGILEAREN BIGARREN LANPOSTUA SORTZEA

Ainhoa Fernández Domínguez zinegotziak mantentze-lanetako langilearen bigarren lanpostua sortzeari buruz galdetu du, aintzat hartuta bere udal-talde EH BILDUK adierazi zuela Udalaren 2024ko aurrekontu orokorra konpromiso horren arabera onetsiko zuela.

Idazkariak adierazi du bideragarritasun juridikoa aztertu behar dela, bai eta lanpostu-zerrendaren ondoriozko aldaketa eta hautaketa-prozesuaren garapena ere.

Eduardo Lorza García zinegotziak zeregin horri lehentasun osoa emateko eskatu du.

##### OSASUN ZENTROARI ATXIKITAKO ETXEBIZITZA

Xabier Nafarrate Cadiñanos zinegotziak osasun-zentroari atxikitako etxebizitza herritarrei eskaintzeari buruz galdetu du. Galdetu du ea gobernu-taldeak musika-eskola eraikin horretara eramatea pentsatu duen, egungo egoitzako birgaitze energetikoko obrak irauten duten bitartean.

Alkate jaunak erantzun du Gorbeia Eskola HLHIrekin harremanetan dagoela obrak irauten duten bitartean musika-eskolako zerbitzuak han emateko, eta argitu du ez duela pentsatu etxebizitza helburu horietarako erabiltzea.

##### SUTARAKO SORTAK

Eduardo Lorza García zinegotziak sutarako sortei buruz galdetu du. Alkate jaunak erantzun du dagoeneko badutela moztu eta ateratzeko lanez arduratuko den enpresa bat. Esan du iaz egur asko seinaleztatu zela; hortaz, aurten gutxiago egongo da, basozainaren irizpidearen arabera.

*Idazkaritzaren eginbidea:*

*Akta hau 2024ko otsailaren 26ko ohiko osoko bilkuran onetsi zen.*

### ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA

